

Enpleguaren Aldeko Itun Sozialerako oinarriak

1. Aurrekariak

Legegintzaldi honetan gai sorta zabala lantzen ari da Lan eta Enplegu Saila, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiarekin elkarlanean, erronka berriei egokitutako baldintzak sortze aldera. Agertoki konplexu honetan politika ekonomikoak, sozialak eta enplegu-politikak definitzea eta ezartzea da helburua.

2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia, Berpiztu programarekin bat datorrena (Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Programa), epe ertaineko bide-orri baten abiapuntua izan zen. Herrialde mailako ituna izan zen, gizarteko eragileekin landua eta Eusko Legebiltzarreko taldeekin adostua. Aukera-berdintasuna eta kalitatezko enplegua dira aipatutako estrategiaren zeharkako bektoreak. Hortik irten dira hiru urte hauetan bultzatutako programak, honakoei buruzkoak: eremu maskulinizatueta emakumeak sartzeko; emakumeen lidergoa eta ekintzailerak; adinaren kudeaketa; langileen prestakuntza-eredu propioa bultzatzea; konpetentzia profesionalak; prestakuntza duala eta txandakakoa; eta kolektibo jakin batzuekin garatutako proiektuak, Europar Batasunak markatutako bidetik, enplegarritasuna, inklusioa eta kalitatezko enplegua sustatzeko.

Enpleguaren Euskal Legea onartzeak, Lanbide Hobetzen planaren bidez Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua eraldatzeak eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legea onartzeak testuinguru egokia ezarri dute Enpleguaren Aldeko Itun Soziala erdiesteko. Enplegua ekintza politikoaren, sozialaren eta ekonomikoaren erdigunean kokatzea da itun honen helburua, euskal gizarteak datorren hamarkadan zehar aurrean izango dituen arlo honetako erronka handiei erantzuna emateko.

2. Enpleguaren Aldeko Itun Soziala eraikitzeko zutabeak

Lehenengoa (zergatik)

Enpleguaren diagnostikorako eta prospektibarako elementu giltzarriak identifikatu dituzte Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak eta itun sozialean presente dauden eragile sozialek:

1. Arlo ekonomikoan, Euskadik ezaugarri hauek ditu: per capita BPG altua, enpresa-hunaren sendotasunari esker eta, bereziki, industriaren pisu erlatibo handiari eta zerbitzuen sektoreak (bereziki turismoak eta merkataritzak) duen gero eta eragin handiagoari esker; laneko produktibitate handia, prestakuntza maila altua duen eta eskola-porrotaren tasa baxua duen biztanlerian eta ekonomia sozialaren garrantzi handian oinarritua; eta ekonomiaren sustapenerako politikaren aldeko apustu instituzional handia eta jarraitua, I+G+b ratio altuak ahalbidetzen dituen. Dena den, esportazio mailak, esanguratsuak izan arren, EBko batezbestekotik urrun daude oraindik; eta enpresen tamainak nabarmen txikiagoa izaten jarraitzen du.

2. Lan-merkatuaren jarduera-tasa oraindik ere urrun dago gure inguruko herrialderik garatuenean duten tasatik; bereziki, emakumeen kasuan. Bestetik, langabezia-tasak hobetzeko marjina du; batez ere, kualifikazio maila baxueneko taldeetan eta adin nagusieneko taldeetan. Gainera, egoera horietako batzuk kroniko bihurtzen ari dira eta eskaintza ez dator bat eskariarekin. Ondorioz, pertsona horien prestakuntza sustatu behar da, zeharkako konpetentziei eta konpetentzia kualifikatzaileei dagokienez.

Pandemiaren krisiak ziurgabetasun handiak sortu zituen lan arloan. Gobernuak esku hartu zuten enplegua babestuz eta enpresei lagunduz eta, horren ondorioz, enplegua da sendotasun handieneko adierazle ekonomikoa. Batetik, kantitateari dagokionez, milioi bat pertsona baino gehiago baitaude Gizarte Segurantzaren afiliatuta. Eta, bestetik, kalitateari dagokionez; izan ere, behin-behinekotasuna murriztu egin da eta pertsonen egonkortasun handiagoa dute, 2021ean onartutako lan-erreformari esker. Nolanahi ere, nahi gabeko partzialtasun maila altua da oraindik ere, bereziki, emakumeen artean; eta soldatak gelditu daude azken hamarkadan.

Zentzu horretan, euskal gizartearen ekitate-indizeak nahiko altuak diren arren, eta babesteko eta laguntzeko zerbitzuen sare garrantzitsua izan arren, soldata-desberdintasunaren eta soldata-pobreziaren mailak zaindu egin behar direla ohartarazten du 2008ko krisi finantzario handiaz geroztik erregistratutako bilakaerak. Horretarako, pauso garrantzitsuak eman dira, pertsona guztien inklusioa bermatzeko. Esaterako, 14/2022 Legea onartu da, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena; edota elkarrizketa sozialaren esparruan adostutako neurriak hartu dira. Era berean, Euskadik komunitate eta gizarte mailako egitura sendoa du hirugarren sektorearen bidez. Horri esker, lan-merkatutik oso aldenduta dauden pertsonekin esku-hartze espezifikoak bideratzen dira. Hala ere, lanean jarraitu behar da jarduera-tasak eta enpleguaren kalitate maila hobetzeko, eta orientaziorako, prestakuntzarako, enplegua aktibatzeko eta bitartekotzarako zerbitzu publikoak indartzeko eta perfektionatzeko.

3. Trantsizioak: Euskadik, ekonomia garatu gehienek bezala, bidegurutze bat du aurrean. Hiru trantsizio ditu bidegurutze horrek, premiaz landu beharrekoak: trantsizio demografiko-soziosanitarioa, trantsizio teknologiko-digitala eta trantsizio klimatiko-energetikoa.

Trantsizio demografiko-soziosanitarioaren erronkak hiru aldagai objektibo ditu: bizi-itxaropenaren hazkundera, jaiotza-tasaren jaitsiera eta biztanleria aktiboaren batez besteko adinaren hazkundera. Faktore horiek intentsitate bereziz agertzen dira Euskadin, zahartze-erritmoa EBko gainerako eremuetan baino altuagoa baita. Belaunaldien arteko txandakatzeari, bizitza-luzetasunaren ekonomiari, zaintza-ereduari, erakundeetako belaunaldien arteko harremanari, eta enpleguari eragiten ari da agertoki konplexu hori. Funtsean, etorkizuneko erronka handia da, adinaren kudeaketa integraturako aliantza handia eskatzen duena.

Trantsizio digitalaren eta teknologikoaren erronkak prozesu disruptibo bat ireki du jarduera ekonomiko ia guztietako produkzio-sistemetan, eta lan-merkatuan aldaketa handiak gertatu dira; profil profesional jakin batzuen eskaria hazi egin da eta, beste profil tradizionalago eta/edo kualifikazio baxuagoko batzuen, berriz, jaitsi.

Lehenagoko produkzio arloko iraultzetan bezala, aldaketa-agertoki honek ziurgabetasuna sortzen du jarduera batzuetan, hazkundera eta itxaropena beste batzuetan, baita eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak ere.

Erronka energetiko-klimatikoetara egokitutako ekonomia jasangarri baterako trantsizioak ageriko eragina du enpleguan. Ikuspegi globaletik, eragin hori positiboa da, baina tentsioak sor ditzake jarduera jakin batzuetan. Ondorioz, zeharkako enplegu-politika behar da, testuinguru bakoitzera egokitzen dena.

Hori guztia dela eta, enplegu-politikek, jada, ez diete arlo pertsonalari edo enpresa bakoitzaren produkzioari bakarrik eragiten. Orain politika bertebralak dira, estrategikoak, erronkei askotariko administrazio publikoen, eragile sozialen, enpresen eta gizartearen artean aurre egiteko ezinbestekoak diren tresna aktiboak.

Bigarrena (zertarako)

Eraldaketa-ekintzen aldeko adostasun soziala eta instituzionala irudikatzen du Euskadiko Enpleguaren Aldeko Itun Sozialak, bi mailatan:

1. Herrialdearen erronka handiei erantzun kolektiboa emango dien akordioa, helmuga partekatuekin, horiei lotutako konpromiso batzuekin eta horiek garatzeko orientabideekin. Funtsean, enplegu gehiago, baldintza hobeak eta enpresen lehiakortasun handiagoa bilatuko dituen akordioa, sendotasun ekonomikoko testuinguru batean.
2. Itunaren bidez zeharkako enplegu-politika berritzaileak sor daitezen, eta hala, enpleguak politika publikoetan duen garrantzia agerian utzi dezaten.

Hain zuzen ere, etorkizunera begira diseinatzeko diren eta Enpleguaren Euskal Legean eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren eraldaketetan (martxan daudenak) oinarritzen diren enplegu-politikek bi errealitate eskaintzen dituzte.

- Enpleguaren zeharkakotasuna: erakunde arteko funtzioak eta eskumenak definituz, lurraldeko sareko zerbitzuaren esparruan; sektoreen arteko harremana barneratuz, enplegu-politikak diseinatzeko eta kudeatzeko bide gisa; eta gobernantza parte-hartzailean oinarritutako testuingurua marraztuz, non elkarrizketa soziala funtsezkoa izango den.
- Berrikuntza, politika kudeatzeko mekanismo eraldatzaile gisa: enplegu-politika aktiboetarako eskubide subjektiboa eta hura kudeatzeko askotariko tresna berritzaileak (zerbitzuen zorro berria) aldaketarako motor bilakatuz.

Proposamen berriak martxan jartzean eta gauzatzean arrakasta izateko, inplikazioa, konpromisoa eta proposamen horiek garatzeko konplizitate instituzionala eta soziala behar dira. Aldaketa modu kolektiboan aktibatzeke mekanismoa da Ituna, eta, ziurgabetasunen aurrean, etorkizunerako berme bat. Izan ere, hainbat maila instituzional eta sozial hartzen ditu barne.

Hirugarrena (nola)

Aurrekari horiekin eta zutabe horien gainean, Euskadiko Enpleguaren Aldeko Itun Sozialean akordioak, aliantzak eta konpromisoak agertzea behar dugu. Hau izango da Itunaren helburu nagusia:

**Jarduera ekonomiko lehiakorra, jasangarria eta arduratsua
bultzatuz enplegu duina bermatzea,
berdintasun-baldintzetan.**

5 jarduera-ardatz ditu:

1. **Prestakuntza** bizitzan zeharreko jarduera aktibo gisa garatzea.
2. Belaunaldien arteko ordezkapena **kudeatzea**, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki.
3. Enpleguan aukera-berdintasuna **sustatzea**.
4. Jarduera ekonomiko lehiakorra, jasangarria eta arduratsua **garatzea**, enplegu duina eta kohesio soziala ekarriko dituen.
5. Enpleguaren kalitatera eta enpresen lehiakortasunera zuzendutako lan-harremanen eredua **bultzatzea**, hiru alderdiko elkarriketa sozial baten testuinguruan.

Eta akordioa laburtzen duten **hamar konpromiso** finkatzen ditu:

1. **Jarduera ekonomiko jasangarria, arduratsua eta lehiakorra sustatzeko konpromisoa, pribatua zein publikoa**, aberastasuna, ongizatea eta kohesio soziala sortuz lan duina eta inklusiboa sortuko eta mantenduko duena.

2. Lan-harremanen testuinguruan, eta eragile guztien inplikazioarekin, hazkunde jasangarria eta inklusiboa lortzeko lagungarria litzatekeen elkarrikitza sozialarekin, enpleguaren kalitatearekin eta bereziki ongizatea eta aberastasuna banatzeko tresna gisa negoziazio kolektiboari bultzada ematearekin konprometituta dagoen eredua txertatzeko konpromisoa.
 - a) Horren guztiaren helburua litzateke enpresetan barne-malgutasunaren eta malgutasun negoziatuaren erabilera bultzatzea haien beharretara egokitu eta, aldi berean, langileen laneko, familiako eta gizarte mailako bizitza kontziliatu ahal izateko.
 - b) Lan-ingurune osasungarria eta segurua izatearen bermea, lanean ari diren bitartean pertsonen osasuna eta ongizatea zaindu eta pribatutasuna babestu ahal izateko.
 - c) Bizitza osoan zehar prestakuntza eta prestakuntzaren eguneratzeko politikak gehitzea.
 - d) erakunde eskudunekin lankidetzat aktiboa izatea, haien duintasuna eta kalitatea eraginkortasunez bermatzen lagunduko duten enplegu modu berrien erregulazio-beharrei buruzko diagnostiko arina egiteko.
3. Jarduera-tasa handitzen laguntzeko konpromisoa, batez ere, honakoen artean: emakumeak, adineko pertsonak eta gazteak, migratzaileak, desgaitasuna duten pertsonak eta prestakuntza maila baxua dutenak. Horretarako, inklusioa eta bizi-kalitatea bultzatzeko tresna bilakatuko da enplegua, trantsizio demografikoaren erronkari erantzun kolektiboa emango diona, ongizatearen eta kohesio sozialaren ikuspuntutik.
4. Ezagutza- eta berrikuntza-inguruneak sortzeko konpromisoa ikerketaren, hezkuntza-prestakuntzaren eta produkzioaren arloko dinamika publiko eta pribatu jasangarriak bilduko dituztenak, kalitatezkoa eta inklusiboa den enplegua eta ekintzailetzarako aukerak sortu eta talentua mantendu eta erakarriko dituztenak. Alderdi horiek betetzeko, gainera, pertsona guztiak erabat integratzea ahalbidetuko duten tresna publikoak erabili behar dira.

5. Langile guztien (okupatuak eta langabeak) prestakuntza eta prestakuntzaren eguneratzea bultzatzeko konpromisoa, gaur egungo eta etorkizuneko beharrei buruzko datu irisgarriak eta datu frogagarriak oinarritzat hartuta. Horren arabera, prestakuntza eta orientazioa enplegu-politika aktiboetan barneratuko lirateke produkzio sektore ugarien beharrei arreta dinamikoa emateko gai den eredu eraginkor eta eragingarriaren arabera. Eta enplegu-politika aktiboetarako eskubide subjektiboa enplegarritasunerako, garapen pertsonal eta profesionalerako, lehiakortasunerako eta enpresen garapenerako tresna gisa erabiliz.
6. Pertsona guztientzako lan-merkatua sortzea bultzatuko duten politikak indartzeko konpromisoa, arreta berezia jarrita enplegura sarbidea izateko eta enplegua mantentzeko garaian gazteek dituzten zailtasunetan. Eredu horrek prebentzio-politikak, ekintzailatza sustatzekoak eta enplegurako sarbidea izateko garaian zailtasun handienak dituzten pertsonen lan-munduratzeko arloko beharrei berme osoz erantzun ahal izateko politikak gehitu beharko ditu.
7. Erronka demografikoari eta belaunaldi mailako ordezkapenari erantzuteko lagungarriak diren eta beste lurralde batzuetatik datozen pertsonak erakartzeko, integratzeko eta prestatzeko konpromisoa. Horrek guztiak, aldi berean, eskakizun hauek bete beharko ditu:
 - a) Produkzio sektoreen eta lan-merkatuko prestakuntza mailen beharrei estaldura ematea profil eta gaitasunen logika anitz eta ugarietik abiatuta.
 - b) Administrazio eskudunek tituluak homologatzeko eta ikasketak baliozkotzeko sistema arin, eraginkor eta segurua eskaintzea, lan-merkatuan erraz sartu ahal izateko.
 - c) Berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea, enplegu duinarekin, lehiakortasunarekin eta etorkizuneko erronkekin konprometitutako Euskadiko ekonomia lortzeko.
8. Belaunaldien arteko eta politika publikoen arteko aliantza garatzeko konpromisoa, zahartzea eta mendekotasun-egoerak kudeatu eta zainketen ekonomia sustatuko duena, ezagutza- eta berrikuntza-inguruneak eskaintzen dituzten ebidentzietatik abiatuta. Testuinguru horretan, enplegu duina aukera-tresna bihurtzen da edozein mendekotasun maila duten pertsonen eta adin handiko pertsonen bizi-kalitaterako eta duintasunerako, eta enpresen lehiakortasunerako.

9. Lan-merkatuan eta lana eskuratzeko eta mantentzeko orduan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko konpromisoa, egungo bereizketak murriztuko dituzten estrategiak indartuz, eta honako hauek sustatuz: enpresen erabakitze-organoetan emakumeen presentzia egotea, emakumeen sustapen profesionala eta presentzia orekatua sektore guztietan, eta kontziliazio erantzunkidea eta, hitz gutxitan esanda, kohesio sozial handiagoa emango duena.
10. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru erakunde mailetan Enplegu Legea eta gizarte-eragileekin lotutakoa osorik garatzeko konpromisoa, enplegu-politiken plangintza eta garapena egiteko garaian lurraldeak duen garrantzia aitortuz, politika publiko guztietan enplegu duinaren ikuspegia sartzea, zeharka eta sektoreen arteko ikuspuntuarekin, enplegu-politika berriak (zeharkakoak, berritzaileak, aldian behin ebaluatuko direnak eta modu kolektiboan eraikiak) egia bihurtzeko testuinguru gisa, eta langileei eta enpresei kalitatezko zerbitzu eraginkorrak eskainiko dizkien ongi dimentsionatutako enplegu-zerbitzu publikoa garatzeko.

Garapena

Itun hau sinatuta, hura garatzeko borondate irmoa adierazten dute sinatzaileek, bakoitzak dagokion arloan.